

“EKIMENAZ ETA SORMENAZ GAIN, ERRESPETUA”



Josune Murua | La Salle Berrozpe | Zikloak

Proiektua aurrera eramateko ikaskideen artean behar den errespetuaren garrantzia da Josune Murua Molocotongo taldearen irakasle arduradunak egin digun ekarpen interesgarrietako bat. Talde hori La Salle Berrozpe ikastetxeak Zikloen multzoan duen ordezkaria da, eta Ikono planetan honetan lehena geratu da.

Nabaritzen dute ikasleek lehiaketaren fase hau irabazteak dakarren ezagumendua?

Nire ustez, bai. Egia esan, horrek motibatu egiten ditu nolabait ere. Eta gainera, proiektuan arreta handiagoa jartzera eta hobeto jarduten ahalegintzera bultzatzen ditu.

Nola hartzen dute sarituak izan direla jakitea?

Ilusio handiz. Eskolan, lehia zintzo tipikoa sortzen da Kosmodisean parte hartzen duten taldeen artean, eta, horri esker, ikasleak gogorrago saiatzen dira beren proiektua ahalik eta ondoen egiten.

Fase honetan finalista izateak motibatzen al ditu ikastetxeko beste talde batzuk?

Esan dudanez, nolabaiteko lehia eta gero eta hobeto egiteko gogo sortzen da, eta hurrengo faseetan zehaztasun handiagoz jarduten dute.

Zalantzak izan zenituzten garatu beharreko gaia aukeratzeko?

Ez. Egia esan, talde honek, zuzentzen ditudan beste batzuek bezala, oso argi izan zuen zer gai garatu nahi zuen ikasturtean

Zer zailtasun gainditu behar izan zenituzten lana egiteko?

Kosmodisea plataforman nola lan egin behar den ondo ulertzea.

Lan horretan eman beharreko denbora. Izan ere, askotan xehetasun gehiegi garatzeko eskatzen zaigu eta ez dugu hori betetzeko astirik izaten, Kosmodiseak eskatzen digun lana eman behar dugun programazioarekin uztartu behar baitugu.

Zein da gai honetatik ateratzen duzuen irakaspn nagusia?

Ekimena, sormena, talde-lana eta ikaskideen arteko errespetua.

Zer espero duzue Kosmodisea ekimenaren gainerakotik?

Hurrengo edizioetan egin beharreko lanak erraztea eta proiektua gauzatzea eramangarriagoa izatea.